

Espedientearen kodea: 2025ZZ020014

Espedientearen gaia: 2026 urtean Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udalbatzak “Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAOn.

Era berean, 2024ko urriaren 30ean onartu zuen Oiartzungo Udalbatza Osoak “Oiartzungo Udalaren 2025-2027 dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

2025/11/25ean Udal Tokiko Batzarrak “2026 urtean Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartu zituen.

Horretarako, 85.000 € ko izendapena egin zuen Udalak 2026 urteko 1 0331.481.334.00.01.2026 zenbakidun partidaren kontura.

Dirulaguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2025-2027rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen araudia.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea urtarrilak 1etik 31a arte ireki zen.

Epearen barruan, 28 kultur elkarteren eskaerak aurkeztu dira. Ekintza hauek guztiak aurrera eraman ahal izateko 116.729,58 € ko dirulaguntza eskaerak aurkeztu dira.

Dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskaera orrian eta eranskinetan behar bezala jasota eta egiaztatuta dauden datuak hartu dira kontuan.

Elkarte eskatzaileek euren ekintzei buruz aurkeztutako datuak baloratu dira, oinarrietan jasotzen denaren arabera.

Dirulaguntzak kalkulatzeko, lehenik, puntuaren balio unitarioa atera da; horretarako, dirulaguntzaren lerro honetako aurrekontua, onartutako eskaeren puntuaren batura artean zatitu da. Jarraian, elkarte bakoitzari dagokion puntu kopurua, puntuaren balio unitarioaz biderkatu da.

Kultura Zerbitzuko arduradunak otsailaren 20an gai honi buruz luzatu duen txostena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan honakoa

ERABAKI DUT

Lehena.- Epearen barruan aurkeztutako eskaerak aztertuta eta deialdiaren oinarrien arabera, 2026an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak herriko elkarteei banatzea eta ordaintzea, erantsitako taulan txertatzen den eran.

Bigarrena.- Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 85.000 € euroko gastu-onarpena egitea, Oiartzungo Udalaren 2026 urteko aurrekontuko 1 0331.481.334.00.01.2026 zenbakidun partidaren kontura.

Hirugarrena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (esleitutako dirulaguntzen %80ari dagokiona, hau da 67.980,30 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, 16.995,07 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

OHIKO KULTUR EKITALDIAK 2026. DIRULAGUNTZAK				
ESKATZAILEA	PUNTUAK GUZTIRA	ESKATUTA LAGUNTZA	LAGUNTZA	ORAIN ORDAINDU
XABIER LOPEZ: ANTZERKI LABORATEGIAK	61	1.100,00 €	1.100,00 €	880,00 €
MARTZELINA BERTS. ELKARTEA: HEZUR BERRIAK	75	2.272,00 €	2.272,00 €	1.817,60 €
IBARGAIN MUSIKA ESKOLA: KONTZERTUAK	47	2.360,00 €	1.910,28 €	1.528,22 €
ALTERNATIBEN OIHARTZUNA: ALTERNATIBEN EGUNA	78	1.000,00 €	1.000,00 €	800,00 €
OIARTZUNGO ORGANOZALEAK: AZKUE MEMORIALA	135	6.000,00 €	5.486,97 €	4.389,58 €
UGALDETXXO KULTUR TALDEA: PAILAZOEN EMANALDIA	94	1.885,50 €	1.885,50 €	1.508,40 €
ELIZALDEKOAK LHI GURASOEN ELKARTEA: 2026KO JARDUERAK	104	5.864,00 €	4.227,00 €	3.381,60 €
PAGOARTE ELKARTEA: EUSKAL ESKULTURA BIZIRIK DOKUMENTALA	99	5.950,00 €	4.023,78 €	3.219,03 €
OIARTZUNGO ANTZERKIZALEEN ELKARTEA: KLUEDO ETA GAU BELTZA	115	6.420,00 €	4.674,09 €	3.739,27 €
OIDUTZ ELKARTEA: 2026KO JARDUERAK	98	5.500,00 €	3.983,14 €	3.186,51 €
LABORE: 2026KO JARDUERAK	98	3.536,00 €	3.536,00 €	2.828,80 €
EHAZE EH KO ANTZERKIZALEEN ELKARTEA: IKUSLE KLUBA ETA MINTEGI BIZIA	93	5.980,00 €	3.779,92 €	3.023,93 €
OLENTZEROREN LAGUNTZAILEAK: MARI DOMINGI ETA OLENTZEROREN ETORRERA	74	5.098,00 €	3.007,68 €	2.406,14 €
GAIZKA GARZIA: SAGARDO EGUNA	71	5.200,00 €	2.885,74 €	2.308,59 €
KU -KU ELKARTEA: 2026KO EGITASMOAK	78	1.380,00 €	1.380,00 €	1.104,00 €
IDURRE UGALDE OLASKOAGA: ARGIA, KAMARA, AKZIOA	58	2.750,00 €	2.357,37 €	1.885,89 €
UGALDETXXOKO ESKOLAK KULTUR GUNEA: OIARTZUARROCK	90	3.473,00 €	3.473,00 €	2.778,40 €
ELIZALDE HERRI ESKOLA: 50. URTEURRENEKO BERTSO BAZKARIA	83	3.000,00 €	3.000,00 €	2.400,00 €
EKAITZ ZABALTZA GAZTELU: ERDI AROKO JARDUNALDIAK	81	4.350,00 €	3.292,18 €	2.633,75 €
HAURTZARO IKASTOLA: BERTSO JAIALDIA, DANTZA EMANALDIA	76	7.337,08 €	3.088,96 €	2.471,17 €
METROKOADROKA ELKARTEA: 21 AULKI, GEZI BELTZAK	111	7.900,00 €	4.511,51 €	3.609,21 €
1545 KULT. ELKARTEA: LITERATURA PLAZARA, GAZTE LITERATUR TALDEA, POESIA ERREZITALDIA, LIBURU AURKEZPENAK	123	12.550,00 €	4.999,24 €	3.999,39 €
AIA ELKARTEA: SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK	91	3.674,00 €	3.674,00 €	2.939,20 €
GURE ESKU DAGO ELKARTEA: HERRITU EGUNA, HERRITU MUSIKATUAK, AUZOAK	112	1.600,00 €	1.600,00 €	1.280,00 €
AINARA LASA PEREZ: LITERATUR EMANALDI ARTISTIKOA	52	1.000,00 €	1.000,00 €	800,00 €
XABI SALABERRIA: HAUR FILOSOFIA	104	4.950,00 €	4.227,00 €	3.381,60 €
MUNANIER ELKARTEA: GARAGARDO AZOKA	121	4.000,00 €	4.000,00 €	3.200,00 €
RAKETISTAK LEHEN ETA ORAIN: DIBULGAZIOA	42	600,00 €	600,00 €	480,00 €
GUZTIRA	2464	116.729,58 €	84.975,37 €	67.980,30 €

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025ZZ020014-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)